

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ETXABARRI URTUPIÑAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Jendaurrean jartzea etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasaren kontribuzio errolda, eta borondatezko epean ordaintzeko jartzea 2020ko bigarren seihiilekoko ordainagiriak

Egin delarik Etxabbarri Urtupiñako etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasaren errolda, 2020ko bigarren seihiilekoari dagokiona, jendaurrean jartzen da hamabost egun baliodunetz, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten aztertzeko eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Interesa dutenek Etxabbarri Urtupiñako (Araba) Administrazio Batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedientea.

Ediktu honek, orobat, bete egiten du erroldan sartuta dauden likidazioak kolektiboki jakinarazteko zeregina, Zergen Foru Arau Orokorrek 98.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Jendaurrean jarriko diren erroldetan jasotako likidazioen aurka, berraztertzeko errekurtsua jarri ahal izango zaio errejidore-lehendakariari, hilabeteko epean, ediktu hau argitaratzen denetik aurrera. Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, ordaintzeko borondatezko epean ere jarri ahal izango da errekurtsua, edo hura amaitu eta hurrengo egunetik hasita hilabete igaro baino lehen.

Ordaintzeko borondatezko epea otsailaren 4an hasi eta martxoaren 4an bukatuko da, egun bi horiek barne direla.

Zergaren ordainketa helbideratuta daukatenei martxoaren 4an kobratuko zaie.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez daukaten zergadunek Kutxabanken bulegoetan ordainduko dute, 08:30etik 10:30era, etxean jasoko duten kobratze jakinarazpena aurkeztuta, edo, bestela, Vitalneten bidez. Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo du administrazio batzarrak.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Etxabbarri Urtupiñako Administrazio Batzarrak zuzenean kudeatuko du zordunketa ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrera egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekarquarekin, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Etxabbarri Urtupiña, 2020ko abenduaren 30a

Lehendakaria
ALFONSO MARTÍN CAMINERO